

Euskaltel, enpresen zerbitzura

Telekomunikazio konpainiak zerbitzu bereziak eskaintzen dizkie enpresei

TELEKOMUNIKAZIOEK izugarri egin dute aurrera. Erabiltzaile arruntek eta enpresek eskura dituzte beren lana errazten eta hobetzen duten hainbat tresna, zerbitzu eta aukera. Baina telekomunikazioaren eta telematikaren eskaintza zabala da, anitza, eta erabiltzaile bakoitzak bere eskaera eta eskaintza ditu. Hala, zerbitzu bereziak sortu dira enpresentzat, enpresen premia edo beharretara egokituak, beren izaera eta berezitasunak aintzat hartuz.

Bide horretan, Euskaltel telekomunikazio konpainiak ere eskaintza berezia egiten die enpresei, eta atal berezi bat sortu du bere antolaketa-aren barruan, Euskaltel Enpresa. Euskalteko ardudunen hitzetan, Euskaltel Enpresa «komunikazio aholkularitza zerbitzua» da batez ere.

«Enpresen arazoak eta beharrak entzutea eta aztertzea dugu helburu, enpresaren komunikabideak hobetzeko konponbidea eskaintzeko. Enpresariengana hurbiltzen gara, enpresariak bezala pentsatzen dugu. Beren arazoak eta errealitatea ulertzea dugu helburu».

• Eskaintza zabala

Enpresek erantzun konkretuak eta momentukoak eskaintzen dituzte. Gainera, informazio teknologien garapen izugarria aintzat hartuz, erantzun horrek zabala izan behar du. Euskaltelek, esate baterako, hainbat aukera eskaintzen dizkie enpresei: neurritan egindako zerbitzuen garapena, arazo bakoitzak bere irtenbidea izan dezan; Internet; telefonia zerbitzu adimendunak, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko eta lana errazteko; telefonia arrunta, zerbitzu eta prezio bereziekin; telefonia mugikorra; telezerbitzuak, alegia, telebanka, telerosketa, hiritarrentzako argibideak...; eta datuak bidaltzea, hau da, gunetik gunera, sare pribatu birtualen zirkuitoen bidez edo baita ordenadoreen arteko komunikazio motak ere.

• Neurriko Internet

Telefono hariak gero eta aukera gehiago eskaintzen ditu. Informazioa lortu, trukatu, saldu, erosi... guztia



XOUSE SIMAL

■ Euskaltel eta Confebaskeko arduradunak akordioa sinatzen telekomunikazioetako puntako teknologia erabiltzearen.

**Euskaltelek
'Euskaltel Enpresa'
salla sortu du
enpresen beharrel
erantzuteko**

abiadura izugarrian. Internet gero eta ohikoagoa da eguneroko bizitzan, bai hiritar arruntenean, baita enpresetan ere. Hori dela eta, Euskaltelek Internet eskaintza berezituak ditu, enpresetako behar bakoitza betetzeko asmoz. Alde batek, enpresa txiki eta lanbide liberaleei zuzendutako eskaintza. «Oso prezio lehiakorra du», Euskalteko arduradunen hitzetan. Enpresa txiki eta ertainentzako eskaintza berezia ere badute, enpresan Internetarako sarrera erraztuz. Eusk@lnet Korporatibo zerbitzuak intranet edo barne sare propioa behar duten enpresentzat da, posta elektronikoa eskainiko dien berezko hornitzailearekin. Eusk@lnet Zuzenak Interneten partaide-

tza izan nahi duten enpresentzat da batez ere. Eusk@lnet Taldeak, berriz, elkarte edo zentru bateko bazkide guztiei Interneten sartu eta posta elektronikoa izateko aukera eskaintzen die.

• Aholkularitza

Sarritan enpresek ez dakite zein den beren beharrak betetzeko aukerarik onena, eta merkatuak zer eskaintzen duen. Horretarako garrantzitsua da aholkularitza zerbitzuen lana. Euskaltelek badu enpresentzat aholkularitza zerbitzua, momentuan eskuagarri dauden irtenbideak eskaintzeko eta baita, etorkizunari begira, teknologiaren aukera berriak aztertu eta eskaintzeko.

SABECO

**LAISTER
BARAKALDO eta DURANGO**

**KALITATEA ETA ZERBITZUA
ZURETZAT**

